

KONTROL MOZIOA

ERREKASTOEN INBENTARIOA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Lurraldearen Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ikusita 2013ko Ibai eta Erreken Lurraldeko Zatikako Planak soilik udalerriko ibai eta erreka nagusiak jasotzen dituela, Udaleko Ingurumen Saitetik informazio gabezia hau asetzeko erreka txiki eta errekaen inbentarioa egiteari ekin zitzaion aurreko legegintzaldian. Geroztik, lan tekniko zabala egiten dihardute ingurumen-teknikariek sare hidrografikoaren erreka bakoitza inbentariatu, kartografiatu eta kalitate-balorazioa egiteko

Inbentario honen azken helburua, ezagutzaz gain, erreka-sistema babestea litzateke. Bai uraren kalitatea eta errekaak berak babesteko, bai bioaniztasun ikuspegitik, sistema hidrikoarekin lotutako habitat eta ekosistema baliotsuak babesteko. Hain zuzen, behar hori ezartzen dute Euskadiko Lurralde Antolaketarako Gidalerroek eta Ibai eta Erreken Zatikako planaren araudi orokorrak. Beharrezkoa baita babestea, erreka eta errekaen uraren kalitatea kontserbatzeko, emari ekologikoa bermatzeko, uberken okupazioa ekiditeko eta ingurumen-interes bereziko tarteen ezaugarriak kontserbatzeko.

Belartza-gainan zehazki bi erreka daude: Errekaxulo eta Irubide ibarrak. Maiatzaren 16ko kontrol batzordean Ingurumeneko ordezkaria interpelaturik, bi erreka hauek inbentarioan jasoko direla adierazi zitzaigun eta, horrez gain, ordezkariak adierazi zuen Udal-gobernuaren konpromisoetako bat babes neurriak hartzea izango litzatekeela. Belartza II Plan Partzial eta urbanizazio proiektuan, ordea, bi erreka hauen eraldaketa nabarmena jasotzen da: Irubide errotik desagerraraziz eta Errekaxulorentzat uberka berri bat ezarriz, ondorioz, morfologia originala ezabatuko delarik.

Horiek horrela, hauex da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari udalerriko erreka eta errekaen inbentario, kartografia eta balorazioa amaitu dezala.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari inbentariotik abiatuta, udal-planeamenduaren bitartez babes azalerak ezarriaz, Donostiako sare-hidrografikoa babestu dezala, arau orokor gisa, uberka eta ibaiertzen okupazio eta eraldaketa ekiditeko.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari “AÑ.14 Belartza II” garapen urbanistikoa eten dezala bertako balore naturalak, Errekaxulo eta Irubide ibarrak barne, legediak ezartzen duen bezala babestu daitezen.

Donostian, 2016ko ekainaren 24a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia